

HITZARMENA, ABANTO-ZIERBENAKO, MUSKIZKO ETA ZIERBENAKO UDALEK, PETRONOR ENPRESAK, SOMORROSTRO PRESTAKUNTZA ZENTROAK ETA FINDEGIKO INSTALAZIOETAN ZERBITZUA EMATEN DUTEN ETA PETRONORREKO FINDEGIAREN INGURUKO UDALERRIETAKO LANGABETUEN ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO NEURRIAK BIDERATZEKO HITZARMENAREKIN BAT EGIN NAHI DUTEN KONTRATEK SINATU BEHARREKOA.

.....n, 2016ko.....aren(e)(a)n.

BILDURIK

Abanto-Zierbenako Maite Etxebarria Azpiolea alkatea andrea, Abanto-Zierbenako Tokiko Garapenerako Agentzia den Abanto-Zierbena Zerbitzuak, S.L.ren izenean eta ordezkartzan.

Borja Liaño Abarategi jauna, Muskizko alkatea, Muskizko Udalaren izenean eta ordezkartzan.

Iñigo de Loyola Ortuzar Angulo jauna, Zierbenako alkatea, Zierbenako Udalaren izenean eta ordezkartzan.

Emiliano Lopez Atxurra jauna, Petronorreko presidentea, Petronor enpresaren izenean eta ordezkartzan.

Juan Manuel Seco Escartín jauna, Somorrostro Prestakuntza Zentroko zuzendaria, SPZen izenean eta ordezkartzan.

Antonio Barrenechea Elorrieta jauna, Tamoinen kontseilari delagatua, Tamoin enpresa kontratistaren izenean eta ordezkartzan.

Alfonso Tocino Acilu jauna, Miesaren kontseilari delagatua, Miesa enpresa kontratistaren izenean eta ordezkartzan.

Hector Lumbreras Valdes jauna, Sacyr-Nervionen Negozio Garapenaren zuzendaria, Sacyr-Nervion enpresa kontratistaren izenean eta ordezkartzan.

Luis M^a Minguez Tovar jauna, Masaren Administrazio eta Giza zuzendaria, Masa enpresa kontratistaren izenean eta ordezkartzan.

ADIERAZTEN DUTE

Akordio hau izenpetzen dutenek beren baliabide materialak eta ekonomikoak eta giza baliabideak batzeko asmoa dutela, Petronorreko Findegia kokatuta dagoen udalerrietako langabetuen enplegagarritasuna hobetzeko neurriak bideratzeko modua sustatze aldera.

Horretarako, mantentze-enpresa kontratistei eta Somorrostro Prestakuntza Zentroari lagundu nahi die bere instalazioen barruan eginkizun horiek betetzen dituzten pertsonen profil profesionaleri dagozkien gaitasunak eskuratzearekin loturiko trebakuntza zehazteko.

Halaber, mantentze-kontratek udalerrietako langabetuak kontrata ditzatela sustatu eta errazteko asmoa du Petronorrek, inguruko udalekin batera.

Horrengatik guztiagatik, jakin badakigu laneratzea errazteko baterako jarduketak egin behar direla prestakuntza espezializatuaren bidez, hain zuzen ere langabetuen laneko trebeziak egokitzeko. Hortaz, honako lankidetzeta-hitzarmen hau izenpetzea erabaki dute, klausula hauen arabera:

Lehenengo. Xedea

Hitzarmen honen xedea udalen konpromisoak eta baldintzak araupetzea eta ezartzea da. Izan ere, horien bidez, udalek, laguntzak erabiliz, langabetuen prestakuntzarako diru-ekarpenak egingo dituzte, haien enplegarritasuna hobetzeko eta Petronorreko Findegiko instalazioetan zerbitzua ematen duten enpresa kontratistei laguntzeko xedearekin.

Bigarren. Ikastaroak

Proposatutako ikastaroen izena "Enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza" izango da, eta 62 orduko iraupena izango du.

Hasieran, 2 ikastaro ematea ezarri da, guztira 30 partaide (15 lagun ikastaro bakoitzean), eta ikasleen banaketa proportzionala egingo da: Abanto-Zierbenako 12 ikasle, Muskizko 12 ikasle eta Zierbenako 6.

2016ko maiatzaren 16an hasiko dira eta aldi berean emango dira; bat astelehenetan eta asteazkenetan izango da, eta bestea astearteetan eta ostegunetan 9:00etatik 13:00etara.

Petronorrek, enpresa kontratistek eta Somorrostro Prestakuntza Zentroak adostu dituzte, aldez aurretik, prestakuntzako edukiak.

Hitzarmen honen I. ERANSKINEAN gehitu dira prestakuntza-programaren edukiak.

Prestakuntza Zentroa

Somorrostro Prestakuntza Zentroak emango ditu ikastaroak. Izan ere, ibilbide luzea du prestakuntza-programak ematen, Petronor enpresarentzat nahiz enpresa kontratistentzat.

6.200 €-ko kostua izango du ikastaro bakoitzak.

Hirugarren. Partaideen betekizunak

Ezinbesteko beharkizun hauek ezarri dira hasierako bi ikastaro horietan parte hartu ahal izateko:

-Abanto-Zierbena, Muskiz edo Zierbena udalerrietan erroldatuta egotea gutxienez 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako antzintasuna izanda.

- Langabezian egotea eskabidea egitean eta ikastaroa hasteko unean.

- Aurretik egina eta indarrean izatea kontratistetzako segurtasuneko 10 orduko ikastaroa.

- Industriaren edota eraikuntzaren sektorean esperientzia dutenak lehenetsiko dira.

Laugarren. Ebaluazioa

Somorrostro Prestakuntza Zentroak, prestakuntza bukatutakoan, ikastaroan parte hartzen duten pertsona guztien ebaluazioa egitea eta “gai” edo “ez gai” kalifikazioa ematea hitzartzen du.

Bostgarren. Kontratazioa

Ikastaroak bukatutakoan, Somorrostro Zentroak “GAI” kalifikazioa lortu duten partaideen zerrendak helaraziko dizkie enpresa kontratistek, mantentze elektromekanikoko laguntzailearen profila duen pertsonalaren beharrak betetzeko, eta enpresa horiek pertsonala elkarriketatu eta harremanetan jartzeko konpromisoa hartzen dute.

Honako hau hitzartzen duten enpresa kontratistek: Abanto-Zierbenako, Muskizko eta Zierbenako udaletako tokiko garapenerako agentziei jakinaraztea izandako harremanen eta gauzaturiko kontratazioen emaitzak, programaren gaineko behar bezalako jarraipena egiteko.

Enpresa kontratistek hitzartzen dute, beren posibilitateen barruan, bi ikastaroetan parte hartzen duten pertsonak hautagai izan daitezzen enpresen hautaketa-prozesuetan eta kontratazioen aldetik dituzten beharretan.

Bestalde, Somorrostro Prestakuntza Zentroak ere igorriko dizkie “gai” kalifikazioa lortu duten partaideen zerrendak akordio hau izenpetzen duten udaletako tokiko garapenerako agentziei.

Seigarren. Finantzazioa

Hiru udalek hitzartzen dute mantentze elektromekanikoko laguntzailearen bi ikastaro gutxienez finantzatzea hasieran, udalerrri horietako langabetuen enplegarritasuna hobetzeko.

Abanto-Zierbena, Muskiz eta Zierbena udalerrietan erroldaturiko pertsonentzako prestakuntzaren kostu osoa hartzen dute beren gain akordio hau izenpetzen duten udalek.

Kostu hori proportzioan ezarriko zaio udal bakoitzari, ikastaroan parte hartzen duten udalerrri bakoitzeko partaideen kopuruaren arabera.

Eta hala agerraraz dadin eta ondorio egokiak izan ditzan, Hitzarmen hau izenpetu da, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Abanto-Zierbenako udaletik

Muskizetik

Maite Etxebarria Azpiolea and.

Borja Liaño Abarategi jn.

Zierbenatik

Somorrostro Prestakuntza Zentrotik

Iñigo Loyola Ortúzar Angulo jn.

Juan Manuel Seco Escartín jn.

PETRONORetik

Enpresa kontratistatik

.....jn.

.....jn.

I. ERANSKINA – PRESTAKUNTZA-PROGRAMA

GAITASUNA:

Industri inguruneetan eragiketa osagarriak egitea zerbitzuan eta bezeroaren instalazioetan, zuzeneko arduradunaren jarraibideen arabera, kalitatezko eta segurtasunezko baldintzetan.

PROGRAMAZIOA:

1.- Industri inguruneetako lanak zerbitzuan.....2 ordu

- Sarrera.

- Prestakuntzaren xedea.
- Industri instalazioak. Ezaugarriak. Motak.
- Jokabidea industri instalazioaren barruan. Erantzukizuna.

- Industri segurtasunaren oinarrizko seinaleztapena.

- Arauzko seinaleak.
- Prebentzio-seinaleak: (arriskua, aurrezaintza eta zaintza).
- Larrialdi-seinaleak.
- Informazio- eta hezkuntza-seinaleak.
- Suaren kontrako seinaleak.
- Babes pertsonaleko elementuen seinaleak.
- NFPA sistema estandarra arriskuak identifikatzeko.
- Instrukzio- eta ebakuazio-planoak.
- Hodien identifikazioa.
- Aldi baterako seinaleak.
- Produktu kimikoen errotuluak

2.- Terminologia, identifikazio elektromekanikoa.....2 ordu

- Termino elektrikoak.

- Disjuntorea, telerruptorea, diferentziala, kontagailua, etab.
- Pintza anperimetrikoa, teluometroa, testerra, etab.
- Lurreko konexioa.
- Beste batzuk.

- Termino mekanikoak.

- Bastidorea, biela, abatza, bujia, etab.
- Karterra, katalizadorea, etab.
- Kateko eskuzko polipastoa.
- Traktela.
- Eslingasa.
- Polipasto elektrikoa.
- Beste batzuk.

3.- Maneiatu beharreko elementuen identifikazioa.....8 ordu

- Apareilaje elektrikoa (etengailu magnetotermikoa, diferentzialak, errelea, etab.)
- Kondentsadoreak.
- Balbula elektrikoak eta mekanikoak. Balbula motak.
- Termostatoak.
- Ponpak. Ponpa motak.
- Motorrak. Motor motak.
- Injektoreak.
- Bero-trukagailuak.
- Konpresoreak.

4.- Mantentzearen oinarrizko tresnen identifikazioa.....12 ordu

- Mantentze elektrikoa.
- Eskuzko tresnak, (artaziak, labana, aliketak, bihurkinak, etab.).
- Diagnostiko eta kalibratio ekipamenduak (Polimetroa, pintza anperimetrikoa.)
- Luzagailu elektrikoak, hainbat tamainatakoak (10 eta 25 metro, biribilgarriak)
- Mantentze mekanikoa.
- Giltzak eta giltza-sorta, (finkoak, izarrekoak, doigarriak, allen, stillson, etab.).
- Giltza dinamometrikoak.
- Karrakadun hodi-jokoak.
- Aliketak, (Unibertsal laua, ebaketa diagonal, kremaileraduna, etab.).
- Bihurkin-jokoak.
- Mailuak eta osagarriak, (Nailona, bola, graneteak, egozkailuak, etab.).
- Hotzeko zizela.
- Estraktoreak, bi erpekoak, guillotinadunak, bernodunak, etab.).
- Limak, (ilargi erdia, lauak, triangeluarrak, etab.).
- Neurketa-tresnak (Flexometroa, kalibrea, ur-nibela, etab.).
- Ebaketa-tresnak (zerra-arkua, errematxegailua, kurrikak, etab.).
- Eskuko edo tailerreko tresna arruntak.
- Disko-makina angular txikia.
- Disko-makina angular handia.
- Zulaketa.
- Inguratzeko zerra.
- Linterna kargagarria.
- Pilekin dabilen linterna.
- Disko-magina eramangarria.
- Leuntzeko harria.
- Harritako kirtendun fresa-jokoa.
- Metako kirtendun fresa-jokoa.
- Bankuko torlojua.
- Laneko banku eramangarria.
- Hariztatzeko ardatz-jokoak.
- Soldatzeko motxilako ekipo elektrikoa, korronte zuzena.
- Erradial eramangarria, handia.
- Igotzeko baliabideak eta osagarriak.
- 2T-ko kateko eskuko polipastoa.
- 2T traktela.
- 2m-ko 2T-ko eslingak.

- Polipasto elektrikoa.
- Batzuk (Material kontsumigarria).
- Garbitzeko espartzu-erroilua.
- Lixatzeko kirtendun eskuilua.
- Ebaketa-diskoak.
- Arbastatzeko diskoak.
- Uretako lixa-orriak.
- 2 mm-ko grafitozko juntura-tolesdura.
- 2 mm-ko uretarako juntura-tolesdura.
- Oliotarako 2 mm-ko juntura-tolesdura.
- Juntura-pastako hodia.
- Juntetarako pasta-hodia, loctite motakoa.
- Tefloi-erroilu txikia.
- Tefloi-erroilu handia.
- Kontaktuak garbitzeko poteak.
- Guztia lasaitzeko poteak.
- Soldadurako masilla hotza.
- Esparrago-finkatzailea.
- Hainbat neurritako juntura espirometalikoak.
- Zinta isolatzailea.
- Esku-larruak.
- Euskarridun paperezko erroiluak.
- Hainbat errakore pneumatikoa.
- Juntura torikoen jokoak.
- Binilo hodia.
- Hainbat egokigailu eta errakore.
- Torlojuak.

- EPI eta segurtasun elementuak.
- Soldatzailearen esku-larruak.
- Soldatzaile-mozorroa.
- 5 Kg-ko itzalgailua:
- Blokeo-giltzarrapoak.
- Esku-larru dielektrikoak.
- Esku-larri kimikoak.
- Pantaila fazialak.
- Segurtasuneko betaurrekoak.
- Suaren kontrako manta.

5.- Tresnen erabilera (Praktikoa)24 ordu

- Tresnak eta ekipamenduak erabiltzeko segurtasuna eta arriskuen prebentzioa.
- Tresnak eta ekipamenduak erabiltzea.
- Arriskua tresnak eta ekipamenduak erabiltzean.
- Arriskuak sistemak eta instalazioan maneiatzean.
- Arrisku elektrikoa, zuzeneko kontaktuak eta zeharkako kontaktuak.
- Segurtasun arauak, tentsiorik gabeko lanak eta segurtasun materialak.
- Eskuko makineria tailerrean erabiltzea.
- Disko-makina eramangarria.
- Daratulua.
- Inguratzeko zerra.
- Leuntzeko harria.
- Kirtendun harrizko fresa-jokoa.
- Kirtendun metako fresa-jokoa.
- Hariztatzeko ardatz-jokoak.
- Ebaketa sopletearekin.

- Erradial eramangarria, handia.
- Polimetroa.
- Pintza anperimetrikoa.
- Isolamendu-neurgailua (Meger mota).
- Giltza dinamometrikoak.
- Giltzak eta giltza-jokoak (Finkoak, izarrekoak, doigarriak, allen, stillson, etab.).
- Karrakadun hodi-jokoak.
- Aliketak (Unibertsal laua, ebaketa diagonal, kremaieraduna, etab.).
- Bihurkin-jokoak.
- Mailuak eta osagarriak (Nailona, bola, graneteak, egozkailuak, etab.).
- Inpaktu-giltzak.
- Brontzezko eta burdinazko porrak.

6.- Goialdetako lanen prestakuntza.....2 ordu

- Goialdetik erortzearen kontzeptua.
- Goialdetako lanen arriskuak.
- Hainbat nibeletatik erotzea eta horrekin lotutako arriskuak.
- Prebentzio-neurriak.
 - o Neurri orokorrak.
 - o Babes kolektiboko neurriak.
 - o Erabili beharreko banakako babes ekipoak.
- Eskailera eramangarrien gaineko lanak.
- Aldamioen gaineko lanak.
- Goialdean lan egiteko diseinatu ez diren egiturak.
- Lan baldintzek alturako arriskueta duten eragina.
- Arriskuen kontrola.

7.- Arnas-ekipamenduen prestakuntza.....2 ordu

- Ekipo motak.
- Araudia.
- Funtzionamendua: Erabilera
- ERArekin egin beharreko lanen gaineko arauak eta gomendioak: (Gutxieneko pertsonala, orientazioa, etab.).

8.- Gune konfinatuen gaineko prestakuntza.....3 ordu

- Sarrera.
- Sartzeko baimena.
- Gune konfinatua segurtasun egoeran jartzea.
- Barneko giroa egiaztatzea.
- Erreskate-prozedura.
- Erreskate laguntzailea.
- Behar bezala aireztaturiko gunea.
- Gune konfinatu motak.

9.- Laneko baimenen arauen gaineko prestakuntza.....3 ordu

- Laneko baimenen helburua.
- Beharrezko zonak.
- Laneko baimenen esku-hartzaileak.
- Betetzea eta izapidetzea.
- Laneko baimen motak.

10.- Sulfhidrikoaren arriskuen gaineko prestakuntza.....2 ordu

- Sulfhidrikoaren arriskuak.
- Sulfhidrikoak pertsonarengan dituen efektuak.
- Sulfhidrikoaren arriskua izan dezaketen zonak.

- Tlv.
- Prebentzio neurriak.

11.- Suhiltzaileen gaineko prestakuntza.....2 ordu

- Itzalgailuaren osagaiak.
 - Motak.
 - Ura
 - Anhidrido karbonikoa.
 - Hauts lehorra.
 - Aparra.
 - Konposatu halogenatuak.
-
- Erabilera.